

Laudioko Udala

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko otsailaren 5eko erabakiaren bidez onetsitako Sostengurako Laguntzen 2021eko Udal Programaren deialdiaren laburpena.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehenengoa. Onuradunak:

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria arrazoi ezberdinengatik jaso ezin dituzten eta, jasaten ari diren gizarte-babesgabetasun egoeratik, beraien oinarriko beharrianak asetzeko diru-laguntzak behar dituzten pertsonak eta familiak.

Bigarrena. Xedea:

Ematea diru-laguntzak pertsonen eta familien arloko arazodun egoerei aurre egiteko, beti ere DSBE eta ELO arautzen duen legeriak horien tratamendua ez baitu aurreikusten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Alkate-udalburuaren 2018ko martxoaren 19 eguneko 0483 Dekretuz onartu diren eta 2018ko martxoaren 23ko 35 zenbakia duen ALHAOn argitaratu diren 2018-2021 aldirako *Sostengurako Laguntzen Udal Programaren* oinarri arautzaileak.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Ekonomia zuzkidura 250.000,00 eurokoa da eta gastua babestu duen aurrekontuko diru saila bada Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko aurrekontuko 0700-2311-480.20.

Bosgarrena. Epea:

ALHAOn oinarriak argitaratuta agertzen diren biharamunetik hasita, 2021eko abenduaren 31ra arte.

Laudio, 2021eko otsailaren 9a

Alkate-udalburua, Ander Añibarro Maestre.